

TREBAKUNTZA 2014-04: ZENBAKIEN ETA NEURRIEN DEKLINAZIOA

Zalantza handiak izaten ditugu sarritan zenbakiak eta neurriak deklinatzerakoan: *bi eguneko dolua ala bi egunetako dolua...*

Hona hemen behin baino gehiagotan ikusi izan ditugun akatsak.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

- 1 * *Langile guztiek urtean lau astetako oporrak hartzeko eskubidea daukate.*
- 2 * *Zerbitzuaren kalte-ordainak partidan 3.000 eurotako aurrekontua daukagu.*
- 3 * *Udaletxean hamar bulego badauzkagu ere, hara joan naiz eta hiru bulegoko zuzendariak baino ez ditut ikusi.*
- 4 * *Udaletxean hamar bulego dauzkagu, eta gaur joan naizenean hamar bulegotako zuzendariak ikusi ditut.*
- 5 * *Nork onartu ote du 400 eurotako fotokopiagailua erostea horrenbesteko zuzkidurarik ez daukagunean?*
- 6 * *Nire etxetik lantokira 15 kilometrotako bidea dago.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENAK

Izan ditzakegun zalantzei irtenbidea emateko, hona hemen Euskaltzaindiaren araua:

“Oinarrian zenbatzaileraren bat ageri denean eta adina, prezioa, neurria, pisua, adierazten duten izenlagunak osatzen direnean ere, -ko da hobesten dena. Idatz bedi, hortaz, bi urteko umea, bost liberako egunkaria, hiru kilometroko bidea, hamar metroko garaiera, hiru asteko egonaldia, e.a.”

Arau hau, ageri denez, nongo kasurako soilik dago emanda eta determinatzailetzat zenbatzaile zehazturen bat (zenbakia) dauka.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Beste kontu bat dira 3. eta 4. adibideak: batean *hamarretik hiru bulegotakoak (hamar bulego daude guztira eta hirutakoak ikusi ditu)* baino ez ditu ikusi; eta bestean, *hamar bulegoetakoak (bulego guztietakoak)* ikusi ditu.

1. Ad. Langile guztiek urtean **lau asteko** oporrak hartzeko eskubidea daukate.
2. Ad. Zerbitzuaren kalte-ordainak partidan **3.000 euroko** aurrekontua daukagu.
3. Ad. Udaletxean hamar bulego badauzkagu ere, hara joan naiz eta **hiru bulegotako** zuzendariak baino ez ditut ikusi.
4. Ad. Udaletxean hamar bulego dauzkagu, eta gaur joan naizenean **hamar bulegoetako** zuzendariak ikusi ditut.
5. Ad. Nork onartu ote du **400 euroko** fotokopiagailua erostea horrenbesteko zuzkidurarik ez daukagunean?
6. Ad. Nire etxetik lantokira **15 kilometroko** bidea dago.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.org (Iratxe)

Hurrengora arte!

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99